

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Aurrekontuak, Finantza-kudeaketa eta Diruzaintza

2019ko ekitaldian kreditu-transferentziaren bitartez bi aurrekontu-aldaketa egiteko dosierren behin-behineko onespena

2019ko azaroaren 15ean egindako ohiko bilkuran, behin-behineko onespena eman zien Gasteizko udalbatzak 2019ko ekitaldiko aurrekontu luzatuan kreditu-aldaketak egiteko dosier hauei:

— 15.000,00 eurokoa kreditu-transferentzia, 11.11 2301 489.68 aurrekontu-aplikaziora — Vivir con Voz Propia elkartearekiko hitzarmena —, dirulaguntza izendun baterako.

— 20.000,00 euroko kreditu-transferentzia, 11.15 2325 489.57 aurrekontu-aplikaziora — Loremaitea-AGLErekiko hitzarmena —, dirulaguntza izendun bat handitzeko.

Udalbatzaren Araudi Organikoaren 164. artikuluan, Arabako lurralde historikoko Toki erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan eta Toki Ogasunak arautzeko Legearen testu bategina onetsi zeneko martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 169. artikuluan xedatutakoaren ildotik, hamabost egun balioduneko epea zabaltzen da, erreklamazio eta iradokizunak aurkezterik izan dadin, Udalbatzari zuzenduta.

Behin betiko onartutzat joko dira dosier horiek baldin eta jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko azaroaren 20an

Ogasun Saileko zinegotzia
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE